




Luzatu bostekoa
eta PARTE HARTU



Haurrentzako
Gida Didaktikoa
2020-2021 Kanpaina Instituzionala


 **Caritas**

Aurkezpena

Bizitzen ari garen egoerak gogor astindu du mundua, eta kinka larrian jarri ditu ziurtasun asko eta asko. Egoera horren aurrean, hauskortasunean batu gaitu, galeraren oinazean, gaixotasunean, eta beldurrean... Baina solidaritatean ere batu gaitu, esku zabaltasunean, eta bestea aintzat hartu eta elkarri eskertuta egoteak. Eta Caritas horren guztiaren gertu-gertuko lekukoa da.

Balkoitik behera begira jarrita ikusi dugu mundua. Gure leihotik aldatu dugu mundua, han-hemenka itxaropena ernatuz, elkarri irriak opari eginez, nor bere burua eskainiz besteak zaintzeko... Elkarrengana hurbiltzeko aukera gutxien izan dugun garaian, orduantxe luzatu diogu eskua elkarri, bata bestea ukitu gabe elkar laztantzeko, zaintzeko, besarkatu gabe maitatzeko.

Uste zabaldua da daukagun oro merezita daukagula, norberak erosia, norbere lanaren ordain gisa jaso, edo besterik gabe, eskubidez jabetzan hartua izan delako. Krisi honetan, hain zuzen ere, horri buruzko iritzia aldatzeko aukera izan dugu. Eta konturatu gara gure ondasun guztiak, gure bizi-kalitatea hobetzen dutenak, elkarri lotuta egoteri eta interdependenteak izateari esker dauzkagula, eta orobat norberak gizarteari ematen diona berez dela baliagarri. Gutariko bakoitzaren lanak, berdin dio bizilagun gisa edota sendagile, banatzaile, okin nahiz beste zernahi gisa egiten dugunak, baliabide-sare batean lotzen gaitu bata besteari, eta horrexek hobetzen du denon bizitza. Keinu bakoitzak, elkarri eskua luzatzen diogun aldi bakoitzak, komunitatea eraikitzeko balio du.



Zer ikasi dugun

Covid-19aren ondoren ere, betiko giza arraza berbera izaten jarraitzen dugu: bizitza askatasunez goberna, zaindu, defenda, eraiki, sorberri, susta eta errukia senti zezan Jainkoak maitasunez sortu zuen huraxe, alegia. Oraingoan, ordea, gogotik ikasi dugu ahuldadea eta ziurgabetasuna direla nagusi bizitzan, zapaltzen dugun lurra ez dela dirudien bezain sendoa, xomorro bat aski dela dena hankaz gora jartzeko... Tragikoa ere eman dezake, baina mezua itxaropentsua da berez, bizitza bera duelako ardatz: Gure bizitza hauskorra da, bakarra. Edozein oldarraldik berdindu gaitzake lurrarekin, baina bizitza bat besterik ez daukagunez, aprobeitza dezagun, eskuzabaltasunez eta esker onez, ez baitakigu noiz arte egin ahal izango ote dugun. Ez gara betierekoak, ez eta munduaren zilborra ere.



Komunitate berri bat sortzeko aukera dugu. Bata bestearen bidera irten behar dugu, eta gure bizikidetzaren harmoniatsuagoa izan dadin lortu, ez hain ernegagarria, elkar ulertuz oinaze sozial eta pertsonalak baretzeko gai izan gaitzen.

Bestalde, urruntze sozial ezinbestekoak, elkarrekin egoteko genuen modua ez ezik, kolokan jarri du elkarrekin egoteko gaitasuna bera ere. Jaiotzen garenetik, gizakiok besarkadaren beroa behar dugu, babesten, zaintzen... gaituztela sentitzea. Behar hori oinarri-oinarrizkoa da, eta gero ere, bizitzaren joanean, ez da sekula desagertzen, ezta hiltzorian gaudenean ere. Are gehiago: une sakratu horretan sentitzen dugu gehien besteen premia, eta orduantxe jartzen da martxan elkar zaintzeko, babesteko eta maitatzeko gure gaitasuna.

Bizitza hauskor horretan ere, agertzen zaigu Jainkoaren Erreinua. Jesusek konpainia egiten digu, eta bizkarrean eramaten gaitu beharra badago. Eta guk ere berdin joka dezagula eskatzen digu, solidarioak izatea, eta bidean aurrera goazela, bestearen gurutzeari bizkar gainean har dezagula, alegia.

Bizitzen ari garen interdependentzia-egoerak, bi aurpegi dauzka: batetik, birusarena, negatiboa, oso kutsagarria dena eta heriotza, oinazea, tristura, bakardadea, pobrezia zabaldu bestetik egiten ez duena; eta, bestetik, solidaritatearena, positiboa, hau ere oso kutsagarria eta azkar zabaltzen dena, etsaiaren kontra denak batzen dituen, eta agendetatik eta albistegietatik bigarren mailako arazoak ezabatzea lortu duena. Hurbileko lagun hurkoa aurkitu dugu, izena eta aurpegia duen bizilaguna; hortxe ikasi dugu, solidaritate-/eskuzabaltasun-/erruki-keinu txikienen bidez, elkarri nola lagundu.


Ondare komuna lehenetsi dugu, den-denona den hori, norberaren interesen gainetik eta interes kolektibo garrantzitsuagoen mesedetan. Eta horrek balio komunitarioa lantzeko bidea eman digu.

Krisi honetatik ezin gara nor bere kasa atera. Denok eta bakoitza gara hauskorak, eta elkarri eskutik hartuta egingo dugu aurrera, pazientzia handiz, eta begirada ahulengengan jarriaz. Horretan, bakoitzaren indar eta gaitasunak besteenei batzea, egoera honetatik irteten lagunduko digu, eta elkarrekin gizarte, herri eta mundu gizatiarrago eta justuago bat eraikitzeko.

Karitatea martxan jartzeko garaia da, hauskortasun eta min egoeran daudenen alde jartzekoa. Eta, horretan, ezin zaintzak ahaztu: geure burua zaindu behar dugu, eta besteak, eta kreazioa. Fedearen lekuko izateko garaia da, senidetasuna sustatzekoa, eta esperantza errotzekoa.

Bizi izan dugun egoerak, oso gogorra izanagatik, abagune ugari ere sortu ditu. Kris-tau-elkarteak abegitsuago bihurtu dira krisi honen ondorioz, eta arretatsuago eta eskuzabalago jokatzen ikasi dute... Askoz ere biziago, eta bizitza besteen alde emateko prestatuago.

Besarkatu eta onar dezagun bizimodu berri hau, bihur dezagun Bizi Berri. Bere argi eta itzalekin. Jesus gure ondoan dago. Komunitatea lagun dugu.



Aurreko hori abiapuntutzat harturik, hauek dira aurtengo Kanpaina instituzionalaren helburuak:

- Gure komunitate, parrokia, auzoetan... guztion ongiaren eraikuntza sustatzea, zaintza, entzute, lankidetzeta eta elkartasunetik abiatuta.
- Bateratu, hitz egin, proposatu, hartu eta toleratzen duen eliz komunitatea sustatu eta erakustea. Jainkoaren bakearen tresna den Eliza, ahulenei itzaropena, laguntza eta inausketa emango diena.
- Lan arduratsu eta eskuzabala, indibiduala eta komunitarioa egitera gonbidatzea, sorkuntza errespetatu eta zaindu, eta pertsona guztiak bildu eta irekiko dituen gizarte gizatiarragoa eta bidezkoagoa lortzeko.



Zer aurkituko duzu gida honetan?

Orriotan gogoeta eta konpromisoa sustatu nahi ditugu, bai indibiduala eta bai komunitarioa, gazte-taldeek Caritasen kanpaina instituzionalaren helburu eta ildoen berri izan dezaten. Horretarako, dinamika-sorta bat, ekintzarako zenbait proposamen eta otoitz- eta introspektzio-aldietarako material ugari aurkituko dituzue jarraian, bakarka nahiz taldeka lantzeko.


Dinamika bakoitzean, deskribapen bat eta haren bidez lortu nahi diren helburuak izango dituzu eskura; martxan jartzeko materialak; ekintzarako eta konpromisoa hartzeko proposamen bat, eta gogoetarako eta otoitzerako tartetxo bat.

1. jarduera

Hesia

Helburuak

- Interkonexioa eta interdependentzia lantzea, eta talde-lana aintzat hartzea norberak taldeari egindako ekarpenetatik abiatuta.
- Ingurune justuagoak, solidarioagoak eta abegitsuagoak sortzeko lanetan norberak eta talde osoak duten erantzukizuna azpimarratzea.



Materialak

Koloretako orriak, kartoi meheak, arkatzak, errotuladoreak, guraizeak, kola...

lan bidea:



https://www.youtube.com/watch?time_continue=1&v=ecctx69wJO4&feature=emb_logo

Hesia («La muralla») abestia/prema (Nicolás Guillén):



<https://www.youtube.com/watch?v=qyGFRLcN-uE>

Hesia

(Nicolás Guillén)

Hesi hau egiteko,
ekarri denok eskuak:
beltzek, beren esku beltzak;
zuriek, beren esku zuriak.

Gure hesia luzatzen da
hondartzatik mendiraino,
menditik hondartzaraino,
eta handik horizonteraino.

—Tok, tok!
—Nor da?
—Arrosa eta krabelina...
—Ireki hesia!
—Tok, tok!
—Nor da?
—Koronelaren sablea...
—Itxi hesia!
—Tok, tok!
—Nor da?
—Usoa eta erramua...
—Ireki hesia!
—Tok, tok!
—Nor da?
—Harra eta ehunzangoa...
—Itxi hesia!

Lagunaren bihotzari:
ireki hesia;
pozoi eta aiztoari:
itxi hesia;
mirto eta mendafinari:
ireki hesia;
sugearen hortzari:
itxi hesia;
lore gainekeo urretxindorrari:
ireki hesia...

Hesi hau eraikitzeko,
elkar ditzagun eskuak:
beltzek, beren esku beltzak;
zuriek, beren esku zuriak.

Gure hesia luzatzen da
hondartzatik mendiraino,
menditik hondartzaraino,
eta handik horizonteraino.

Zer egingo dugu?

Gure mundua justuagoa izateko, eta denok bake eta harmonia ederrean bizitzeko zer egin dezakegun imajinatzea da helburua. Hasi jolasean gure gizartean hesiaz bestaldean daudenen inklusio eta zaintzen alde, eta jakin horretan ez zabiltzatela bakarrik, gure eskuak esku ahaltsu eta goxoagoen esku daudela, eta esku guztiak elkarturik, denok batera arrakalatuko ditugula inguruan ditugun hesiak, osatzen, garbitzen, sendatzen eta baketzen duen guztia barrura sartu eta suntsitzen, zikintzen, kaltetzen eta aurre egiten duen guztia kanpora atera dadin.



Esan eta egin

Batzuetan geure munduan ixten gara: nor bere taldean, eroso, gustura edo seguru sentitzen garen inguruneetan... eta izugarri kostatzen zaigu besteei gure ateak irekitzea, beldur baikara horrek gure erosotasun eta segurtasuna hautsiko ote dituen. Ni ongi banago, zergatik arriskatu eta besteei nire munduan sartzen utzi? Baina hesia zabaltzeak ez du zergatik hori esan nahi. Hori guztia barruan gaudenaren eta sartzen uztea erabakitzen dugunaren araberakoa da.

Ekimena *Ian* bideoa ikusiz hasiko dugu, non hesiak nola zabaltzea erakusten den, hesiak gainditu eskuak batzen ditugunean, kolore eta era guztietako eskuak. Galdetu taldeari ea zer iruditu zaien Ianen historia, eta konta dezatela euren hitzekin. Eztabaida pizteko, egin honelako galderak: Zer nahi du Ianek? Zerk eragozten dio nahi duena lortzea? Bere esku al dago bakarrik? Zergatik haurrek lagundu nahi dute Ian? Nola lortzen dute beren artean dagoen hesia irekitzea?

Horren ondoren, proposatu *Hesia* abestia entzutea, edo irakurri Nicolás Guillén-en izenburu bereko poema, eta azpimarratu, Iani buruzko bideoari erreferentzia eginez, pertsona guztiok bata bestearekin elkartuta erabakitzen dugula zer den gure parkean sar dadin nahi duguna eta zer kanpoan geratzea nahi duguna.

Eskatu neska-mutilei abestia osatzeko. Taldeka, idatzi dezatela zerrenda batean zeri irekiko eta zeri itxiko lioketen hesia. Zerrendan denetik idatz dezakete: inguruan eduki eta besteekin partekatu nahi dituzten gauzak, emozioak, sentimenduak... eta urrun nahi dituztenak: besarkadak, oihuak, liburuak, jolasak... Zerrenda osatua dutenean, txandaka, taldeek *Tok, tok!* joko dute hesian, abestian bezala, eta denen artean erabakiko dute zeri irekiko eta zeri itxiko dioten atea.

1. taldea: Tok, tok!

Denok: Nor da?

1. taldea: Aitonaren besarkada

Denok: Ireki hesia!

2. taldea: Tok, tok!


Denok: Nor da?

2. taldea: Pistolak eta balak

Denok: Itxi hesia!

Dinamikaren joanean, hesiaren alde batean eta bestean zer utzi erabakitzen ari zaretela, zuen artean eztabaida sortuko da ziur asko. Hala bada, esplikatutako besteekin partekatzen dugunari eta bizimodua errazten eta pertsona hobeak izaten laguntzen digunari ireki diogula hesia; eta liskarra edo kaltea eragiten duenari, eta min egin, eta egoistago bihurtzen gaituenari, itxi.

Azkenik, marraztu zuen eskuen siluetak koloretako orrietan, eta bakoitzean hesiaren alde batean eta bestean utzitako zer edo zer idatzi ondoren, itsatsi siluetak kartoi mehe banatan, eta osatu denekin horma-irudi bat egin. Gero, otoitzerako eta eskerrak emateko gordea duzuen tartean, erabili horma-irudia gainerako materialekin batera.



Hausnartzeko eta eskertzeko

Zenbat eta zenbat gauza egin ditzakegun eskuekin! Ez al zaizkizue denak ere oso garantzitsuak iruditzen? Eskuekin jaten eta idazten dugu, haiekin eusten diegu gauzei, eraikitzen eta marrazten dugu, eskua ematen diegu elkarri laguntza gisa... Normalean, ez gara horretaz jabetu ere egiten, baina hala da. Gaur arreta handienaz begiratuko diegu gure eskuei, eta haiengatik eskerrak emango. Pentsatu tartetxo batez eskuekin zenbat eta zenbat gauza egiten ditugun, nola eta zertan laguntzen diguten eskuek gure bizimodua errazagoa izaten. Horretan, abesti hau oso lagungarria izan daiteke:

Eskerrik asko, Jauna, eskuengatik



<https://www.youtube.com/watch?v=QrRQy3R9RFQ>

Eskerrik asko,
Jauna, eskuengatik.

Esku-beteka ematen ditugun
laztan eta besarkadengatik,
opari ematen ditugun
gauza harrigarriengatik.

Eskuei esker
jotzen ditugun txaloengatik.
Zoratzen gaude,
txalo jo dezakegulako.

Eskuei esker
idazten dugunagatik.
Zoratzen gaude,
idatzi dezakegulako.

Eskuei esker
marrazten dugunagatik.

Eskerrik asko, Jauna, eskuengatik

Zoratzen gaude,
marraztu dezakegulako.

Eskerrik asko,
Jauna, eskuengatik.

Esku-beteka ematen ditugun
laztan eta besarkadengatik,
opari ematen ditugun
gauza harrigarriengatik.

Eskuei esker
kozinatzen dugunagatik.
Zoratzen gaude,
kozinatu dezakegulako.

Eskuei esker
egiten ditugun jolasengatik.
Zoratzen gaude,
jolastu gaitezkeelako.

Eskuei esker
elkarri ematen diogun laguntzagatik.
Zoratzen gaude,
lagundu dezakegulako.

Eskerrik asko,
Jauna, eskuengatik.

Gero, esan edo idatzi eskuengatik eskertzeko dituzuen arrazoiengatik.

Elkarrekin kantuan eginez amaituko dugu otoitza.



Eskuak zabal-zabalik

Eskuak zabal-zabalik



https://www.youtube.com/watch?v=qpQv_NqQBgY

Zorionekoak gu,
aterik gabeko bihotz baten jabe garelako,
zorionekoak gu,
eskuak zabal-zabalik dauzkagulako.


Eskuak zabal-zabalik,
lagunarenak estutzeko.
Eskuak zabal-zabalik,
bidean elkarri laguntzeko.


Eskuak zabal-zabalik,
mundu berri bat bilatzeko.
Eskuak zabal-zabalik,
egiteko, ez desegiteko.

Zorionekoak gu,
aterik gabeko bihotz baten jabe garelako...

Eskuak zabal-zabalik,
Jesus maisuarenak.
Eskuak zabal-zabalik,
maite-maiteak gaituenarenak.

Eskuak zabal-zabalik,
maitasunez beteak, Mariarenak.
Eskuak zabal-zabalik,
iluntasunean argi egiten digutenarenak.





2. jarduera

Maskaren atzean

Helburuak

- Zinez zer garen argitara ematea: pertsona solidarioak, besteez arduratzen garenak.
- Norberaren eta besteen emozio eta sentimenduak lotsarik eta beldurrik gabe azaltzea, partekatzea eta entzutea.

Materialak

Orriak, arkatzak, errotuladoreak...

Paperezko maskarak nola egin azaltzen duen bidea:





<https://www.youtube.com/watch?v=geTgND9dgvo>

Paperezko maskarak edo maskara kirurgikoak.

Zer egingo dugu?

Azken hilabeteetan maskara baten atzean ezkutaturik bizitzen ikasi behar izan dugu: maskarak babestu gaitu, baina baita estali eta ezkutatu ere. Horrek, ordea, ez du esan nahi maskarak isilarazi gaituenik edota irri egitea eragotzi digunik. Erabat ezin ikusi arren, gai gara lagunak, gurasoak... igartzeko. Maskarekin ere, lehengo berak izaten jarraitzen dugu, eta maskara jantzita eramanda ere, posible da besteei sentitzen duguna transmititzen eta erakusten, eta besteek zer sentitzen duten jakitea ere. Irriak oparitzen jarraitu dezakegu. Edozertarako hor jarraitzen dugu, maskaren atzean.



Esan eta egin

Hasteko, hitz egin denok maskarekin bizi izandako esperientziaz, erabiltzea asko kostatu zaien, oso gogaikarria gertatu zaien... Labur-labur, solastuz azaldu dezagun zergatik den garrantzitsua maskarak erabiltzea. Galdetu ea maskara jarria eramateak zerbaitetan aldatzen gaituen, zer egitea eragozten digun: elkarri musu ematea, sudurra arraskatzea... Beharbada baten batek aipatuko du maskarek irri nola egiten dugun ikustea galarazten duela. Baina inork ezer esaten ez badu, atera zuk gaia eta eztabaidatu denok ea hala den ala ez. Irri egin dezakegu, bai, maskarak ez du halakorik galarazten, baina besteek ezin gaituzte irri egiten ikusi. Baina, zinez, hala al da?

Jolas-proposamena: ezetz asmatu zer sentitzen dudan? Haurretako batek, maskara jarria duela, guk esandako zenbait emozio adieraziko ditu keinuen bidez: beldurra, harridura, sorpresa, poza, tristura, haserrea, zalantza, errua, segurtasuna... Gainerako taldekideek emozio bakoitza asmatu beharko dute. Beste aukera bat da neska edo mutil batek emozio bat keinuen bidez adierazi eta, txandaka, gainerako haurrek gauza bera egitea, eta kasu bakoitzean, honela galdetzea: "Nola sentitzen da Peru?"; eta neska-mutilek erantzutea: "Peru... sentitzen da". Hirugarren aukera bat: animatzailerak izatea emozio eta sentimenduak adierazten dituen maskarak aurpegia estaltzen diola, eta haurrek emozio eta sentimendu bakoitza zein den asmatzea.

Honetan jolasean aritu ondoren, emozioak adierazteko beste modu bat proposatu dezakegu: esate baterako, maskara dekoratuz edota bertan mezuak idatziz. Horretarako, eta jolasean zenbat denbora eman dezakegunaren arabera, eta taldekideek zer adin duten kontuan hartuta, paperezko maskarak egin ditzakezue bideoan azaltzen diren pausoak jarraituz, eta horren ondoren, maskarak dekoratu eta "Irri egiten ari naitzaizu" edota "Maskara honen atzean neu nago" bezalako mezuak idatz ditzakete bertan. Beste aukera bat da neska-mutilei guk egin edo amaitzear dauden maskarak banatzea, haiek osa eta dekoratu ditzaten. Aukerarik errazena, maskara kirurgikoak banatzea eta dekoratzea da.

Paperezko maskarak erabiltzen baditugu, argi geratu behar du halakoak dinamika honetan bakarrik erabiltzekoak direla, baina ez covid-19tik babesteko. Otoitzaren unean eskaini daitezke.



Hausnartzeko eta eskertzeko

Maskararen atzean ere, lehengo berak izaten jarraitzen dugu. Lehen bezala egiten dugu barre, lehen bezala sufritzen dugu, lehen bezala entzuten eta hitz egiten dugu... Ahoa es-talia badugu ere, ez gara aldatu. Eta gutariko bakoitzaren esku dago besteak nola sentitzen diren eta zer behar duten jakitea, argi eta garbi esan edo adierazi ezin badute ere. Gure esku dago oihu edo protesta egitea, norberari edo besteei gertatua salatzeke. Zer moduz zau-den? galdetu dezakegu. Zerbait behar al duzu? Zer egin dezaket? Eta hori guztia maskara kendu gabe egin dezakegu. Irriak, maitasuna, ura freskoa, eguzki-izpiak, bizitza, malkoak... oparitzen jarrai dezakegu. Izan ere, ahoa estalita izatea, ez baita itxita izatea.

Hartu

(Mahatma Gandhi)

Hartu irri hau eta
eman opari inoiz irri
egin ez diotenari.

Hartu eguzki-izpi hau
eta hegaldarazi
gaua nagusi den eremuraino.

Hartu iturri hau
eta garbitu dadila han
lokatzetan bizi dena.

Hartu malko hau
eta jarri inoiz negar
egin ez duenaren aurpegian.

Hartu kemena
eta jarri borroka egiten
ez dakienaren ariman.

Hartu bizitza
eta eman haren berri
bizitzen ez dakienari.

Hartu esperantza
eta bizi
haren argitan.

Hartu ontasuna
eta emaitzatu
ematen ez dakienari.

Hartu maitasuna
eta eman haren berri
mundu osoari.

3. jarduera

Pertsona guztien eskubideak eta guztiontzat

Helburuak

- Sorterriaren arabera haur batetik bestera zer-nolako desberdintasunak dauden agerian jarri eta ezagutaraztea.
- Neska-mutil guztien eskubideez hausnartzea eta jabetzea.
- Norbanako eta talde gisa haur guztien ongizatearen alde konpromisoa sustatzea.

Materialak

Paper-lanetarako materialak: orriak, arkatzak, errotuladoreak...

"Derechos de la infancia" bideoa:



<https://www.youtube.com/watch?v=KSKZY5vNODM>

"Derechos de la infancia" abestia:



https://www.youtube.com/watch?v=xNYTO_rwfqI

"Juntos Unicef" abestia:



https://www.youtube.com/watch?v=kSD_Vs6TaG0

Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren dokumentua:



<https://www.un.org/es/events/childrenday/pdf/derechos.pdf>



Zer egingo dugu?

Ba al dakizu zure eskubideak zein diren? Eta errespetatzen diren ala ez, hori ere ba al dakizu? Zer egin eskubideak betearazteko? Neska-mutil guztiek eskubide berberak al dituzte?

Badaude eskubide orokor batzuk, herrialde guztiek aitortuak, munduko edozein herrialdetako neska-mutilak babestea helburu dutenak, eta haien berri izango dugu jarraian. Orobat ikusiko dugu zer egin dezakegun eskubide horiek betearazi eta berdin da nongo neska-mutilak babesteko.

Gainera, eskubideei buruzko zuen hitzarmena egitea proposatzen dizuegu, haren berri eman dezazuen etxean, eskolan, parrokian, auzoan...

Esanetik egitera

Neska-mutilek konta dezatela nolakoa den beren egunerokoa, goizean jaikitzen direnetik gauean oheratzen diren arte. Bakoitza kontatzen ari dena denen artean osatu dezakete. Horretarako, dinamizatzailerak egin ditzala haurren eskubideekin lotutako zenbait galdera. Estekan egin dezakezue klik Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren dokumentua begiraleek irakurtzeko. Hona hitzarmen horren laburpena, Nazio Batuek onartutako eskubideen dekalogo modura emana:

1. **Berdintasunerako** eskubidea, arraza, erlijioa, hizkuntza, nazionalitatea, sexua, iritzi politikoa edo beste edozein ezaugarri kontuan hartu gabe.
2. **Babes berezia** jasotzeko eskubidea, fisikoki, mentalki eta sozialki osasuntsu eta libre haz daitezen.
3. Jaiotzen den une beretik, **izen bat eta nazionalitate bat** izateko eskubidea.
4. **Elikadura, etxebizitza eta osasun-arreta** egoki eta duina izateko eskubidea, behar den bezala garatzen lagundu diezaioten.
5. Urritu fisiko edo psikikoek beren gaitasunekin bat datozen doako **hezkuntza** eta arreta bereziak jasotzeko eskubidea, eta hezkuntza hori modu egokian jasotzekoa.
6. **Familia** izateko eta familia horrek eta gizarteak maitatua eta ulertua izateko eskubidea.
7. **Jolasteko eta dibertitzeko** eskubidea, haurraren garapen eta hazkunde pertsonal eta sozialaren funtsezko elementu gisa.
8. Arrisku-egoeratan arreta eta **laguntza** jasotzen lehenak izateko eskubidea.
9. Edozein esplotazio, krudelkeria edo abandonu-egoeratan **babestua** izateko eskubidea.
10. Munduko pertsona guztien arteko **elkartasuna, adiskidetasuna eta justizia** sustatzen duen hezkuntza jasotzeko eskubidea.

Bukatutakoan, ikusi Haurren Aldeko Plataformaren neska-mutilen eskubideei buruzko bideoa, eta dinamizatzailleak azpimarra dezala neska-mutilek deskribatu berri duten egun horretan beren eskubideak zorrotz zaindu eta errespetatu diren arren, herrialde askotan ez dela hori gertatzen. Galdetu ea zer egin daitekeen eskubideak nonahi betearazteko, eta proposamen guztiak idatziko ditugu.

Gero, taldeka, euren eskubideen deklarazioa idaztera gonbidatu. Nazio Batuen Erakundearen hitzarmenean jasotzen denetik abiatuta, egin dezatela zerrenda bat eta, haurrak diren aldetik, eska diezaietela helduei (etxekoei, eskolakoei, parrokiakoei, herri edo hirikoei...) zer behar duten osasuntsu eta seguru hazteko. Talde bakoitzaren egoera aintzat hartzea da asmoa, honelako zerbait egitea:

Eskolan, azalpenak, era
dibertigarrian jasotzeko eskubidea dugu.

Gerra bat egonez gero, babestuar izateko eskubidea
dugu.

Gurasoek gu zaintzeko eta gauero ipuin bat
irakurtzeko eskubidea dugu.

Nahi ez badugu bakarrik ez egoteko eskubidea dugu.

Nahi ditugun lagunak izateko eskubidea dugu, berdin
da mutila ala neska den, beste nonbait jaioa den,
zer erlijio duen, edo gureak ez bezalakoa zaletasunak
dituen.

...etarako eskubidea dugu.

Azkenik, eskubideei buruz proposatzen dizkizuegun bi abestietako bat entzun dezakezue.

Hausnartzeko eta eskertzeko

Oraintxe bertan lagunarte ederrean gaude, ezin ederkiago, bideoak ikusten, idazten, otoitz egiten, jolasten... Bileraren ondoren etxekoekin bazkaltzera, meriendatzera edo afaltzera joango gara. Gainera, eskolara joaten gara egunero, eta minez bagaude, berehala eramango gaituzte osasun-zentrora.

Oso zorionekoak gara, normaltzat jotzen dugun hori guztia ez baita batere normala. Munduko bazter askotan, gu bezalako neska-mutil askok, ez dute halako ezer.

Ikusi bideo hau:

Kontrasteak:



https://www.youtube.com/watch?time_continue=3&v=pHsvUaUnsWY&feature=emb_logo

Hausnartu jarduera honetan ikasitakoaz. Gero, eskaini zuen eskubideen deklarazioa, munduko haur guztiek berez dagozkien eskubideez gozatzeko aukera izan dezaten.



Amaitzeko, elkarrekin otoitz egingo dugu hitz hauek lagun:

Handia eta txikia

(Javier Fonseca)

Jesus, nagusiek
sarritan esaten dute
haurren antzeko izan nahi dutela.

Nik, haurra naizen honek,
eskubide eta betebehardun
izaten utz diezagutela nahi dut.

Jolasten, ikasten
eta otoitz egiten
utz diezagutela.

Amets egiten,
irakurtzen eta ikasten
utz diezagutela.

Mundu garbi bat
partekatzen eta gozatzen,
eta itsasoa,
eta basoak, eta ibaiak.

Beldurrik eta neurrik
gabe barre egiten.
Denbora musutan
eta laztanetan neurtzen.

Eta, haztean,
utz diezagutela, nagusiak
izan arren, amets egiten,

jolasten, munduari
irri egiten, ikasten
eta otoitz egiten.

Jesus,
nagusitzean zure irudi
eta antzeko egin nazazun
eskatzen dizut:
handia eta txikia.

